

Modesta Gabilondo Legorburu
Antzuola, Gipuzkoa (1910-2004)

Aurkibidea

Biografia

Irimoegigoena auzoko Ibarra baserrian jaio zen. Aita Eusebio Gabilondo zuen eta ama Anastasia Legorburu, biak Antzuolakoak. Aitak baserriko lanaz gain gurdizain lana ere egiten zuen hala eskatzen ziotenean. Gurdiarekin eta idi parearekin inguruko herrietara ikatza, egurra, narrua, eta abar garraiatzen zituen.

Zintak

ANT-006

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Legorburu, Jone
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Abadeen eragina neska-mutilengan

- **Erref:** ANT-006/001
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Dantzan. "Neskatxak mutilekin ez zabizte gaizki" kanta zaharra. Erromeriako aldrebeskeriak abadeari konfesatu behar. Kongregazioa. Zinta berdea.</p>

Transkripzioa

- Gero bakarrik dantzan gebitzenian, zerak kantatzen jonan, Anjela [Aurrezabalguak], [Garbitxun] ta amak, --lehelengo ez [...] ze esaten eban--: "neskatxak mutilekin ez zabizte gaizki". Ta mutil barik ibiltzen giñuztaan dantzan. Ta harek esaten zoskun hori: "neskatxak mutilekin ez zabizte gaizki", kantuan, panderua juaz harek. Ta horrek danak be, ba, entzun ein bihar izaten zittunan.
- Ta gero konfesatzera be jun biharko ziñuen, ba? Erromerixako aldrebeskeixak eta...
- Eta gero kongregaziñotik etara dantza ein nebalako.
- [...] kongregaziñotik etara zebe hori. Ni sartu barik nenguan, e?
- Eta gero, jun bihar zan aste-egunian beste zinta batekin hiru aldiz jauna hartzera.
- Zinta berdia. Zinta azula izeten zan komuniokua edo... kongregaziñokua, eta gero zinta berdiakin.
- Ta gero zinta berdiakin jun bihar ziñuan kastigauta. Atzera sartuko baziñan kongregaziñuan, hauraxe ein bihar zonan.
- Haura distinziñua zonan. Ni ez nitzan sartu ta...
- Ein neban hori.
- Ta ze zonan, ba, kongregaziñua?
- Hillero neska zaharrak aurretik eta gaztie atzetik jutie illaran.
- Juntakuak zien, e...
- Luistarrak bezelaxe!
- Juntakuak zittunan, ba, zerak, soltera edadetuak. Ta atzetik geiñetikuak. Luistarrak be bai ta Marian alabak be bai. Ta gero, Marian alabak, ba, horixe eukitzen zebe: dantzarik ez ein bihar. Eta bati esan zotsen, dihar ein zotsen batek, -- harek "zu" esango zotsan, nik oin "hi" esango dotsuet: "Atzo mutilekin dantza ein ziñuan". Eskolan zebillen neska haura, baiña hamalau urte kunpliduta zeuzkan. Ta: "Zuk mutilekin dantza ein ziñuan". "Bai, baiña nere lagunak mutilekin dantza ein ta gero kafia hartzera jun zien".
- Bera, ba... bera hori ein barikua.
- Bera [...]. Ta kongregaziñoko jentia holaxe zainttu bihar izeten zaben. Harek ziran zerekuek, juntakuek. Ta juntako harek zaintzen zittuen gaiñetikuak zela zebitzen.
- Nik Ondarren ein najonan dantzan. Gaiñera, zereko, Don Isidron lehengusiña bat, moja jun zonan haura, hauraxe, Dionisio ta neure gizon zana, ein giñunan dantzan. Ta baten batek ikusi giñuzen ta hurrengo

egunian diharka. Ta, ba, zintiakin jun bihar zala atzera segitze ezker, ta, ba, ein giñuan hori be. Gaurko jiria ez zan orduen. Gu bildurrez bizi izan giñen holako gauzeekin. Ta zuk esan dozuna, konfesatzera be hantxe, illaran. Sei aurretik bazeren, zazpi bazeren, hantxe illaran ta...

- Haura distinziñua izeten zonan.
- ...gero, ba... Bai.
- Zinta berdiakin, ba, distingiduta harek. Harek, ba, pektarixa haura.
- Bai, distingiduta. Ta gero: "Gehixao ez dozue dantzarik eingo?", ta ezetz esan bihar.
- Nahiz ta gero ein...
- Bai, ba! Nahiz ta gero eiin. Ta, holaxe zan.
- Holaxe zonan.
- Holaxe zonan ta kitto.
- Eta azkenian, zinta berdía azula baiño gehixaotan erabili bihar ixa.
- Ez, atzera kendu. Haura atzera entregau ein biher zan. Bai, ba.
- Eske, Ondarren be [ikusigatik], Deskargan ta Uzarragan be ez jonen harek ikusten.
- Ez.
- Orduan, han aprobetxau bihar...
- Bai, ba! Han aprobetxau bihar izeten zonan.
- Ta atento zain egoten zien, beste lanik ez jonen eukitzen ta! Txarrak ez zien izengo, baiña horixe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com